


HAUR
HEZKUNTZA
ONARPENAK



COLEGIOS
MARIANISTAS

**SANTA MARÍA
MARIANISTAS**

Vitoria-Gasteiz





**SANTA MARÍA
MARIANISTAS**
Vitoria-Gasteiz

ONGI ETORRI GURE IKASTETXERA

Familia agurgarriak:

Atsegin handiz eman nahi dizuegu ongietorria gure ikastetxera. Eskerrik asko gugan jarritako konfiantzagatik, zuen ondasun preziatuena gure esku jarri duzuelako eta gure hezkuntza proiektuan sinesten duzuelako.

Ikastetxe hau 125 urtez baino gehiagoz egon da hiri honetan errotuta eta hasieratik, hiriaren zerbitzura egon nahi izan du. Liburuxka honen lehengo atalean, gure **misioa, ikuspegia eta balioak** deskribatuko ditugu.

Guztiok helburu berbera dugu: zuen semea/alaba pixkanaka eta osorik heztea, alderdi orotan. Lortu nahi dugun ikaslearen profila gure zentroen sarean berbera den **Marianisten Hezkuntza Proiektuan** oinarrituta dago, eta orriotan aurkezten dizuegun **berezko hezkuntza eskaintzan** zehazten da.

AURKIBIDEA

Gure Heziketa Proposamena	04
Hizkuntz Proiektua	06
Haur Hezkuntzaren gakoak	08
Familiak eta hezkuntza espazioak	10
Proiektu pedagogikoa 1-2 urte	12
Proiektu pedagogikoa 3-5 urte	14
Zerbitzuak	16
Curriculumetik Kanpokoak	17
Kanpusa - MHP	18
Educamos	20

Gure hezkuntza zereginaren gidari diren oinarri orokor horiez gain, gure **hizkuntza proiektuari** buruzko informazioa ere erantsi dizuegu, gure proiektuaren ikuspegi osoa izateko.

Informazio liburuxka honen laugarren zatia **ardatza haur hezkuntza** da. Atal horretan, xehetasunez agertzen dira etapa horretako helburu, **alderdi metodologiko, proiektu eta zerbitzuak**.

Gainerako etapei, **beste funtsezko hezkuntza proiektu batzuei eta curriculumaz kanpoko eskaintzari** buruzko informazio osagarria eskura dezakezue gure web orriko "Hezkuntza eskaintza" atalean:
www.marias-gasteiz.org

Eskerrik asko gugan jarritako konfiantzagatik.

Joseba Albisu
Zuzendari Nagusia

Cristina Rojas
H.H.ko Zuzendaria





EGITEKOA

Vitoria-Gasteizko gizarteari zerbitzua eskaini nahi dion Marianisten eskola bat gara. Haur eta nerabeei **ebanjelioan oinarritutako pertsona kontzeptuari begirako hezkuntza** eskaintzen diegu; **hots, Elizarekiko leiala eta gure munduaren errealitateari eta bizi dugun gizarte eta kultura testuinguruari adi erreparatzen diena.**

Gure ikasleek **pertsona gisa erabat garatzeko eta gizartean bizitzeko beharrezkoak dituzten gaitasunak** jasotzea nahi dugu, mundu bidezko eta gizatiar-rago baten eraikuntzan parte hartu eta Jainkoaren seme-alaba izateko duten bokazioa ezagutu dezaten.

IKUSPEGIA

Gure ikastetxearen xedea, hain justu, gure hiriko haur eta gazteei **hezkuntza osotua eta kalitatezkoa** eskaintzen jarraitzea da.

Horretarako, beraz, honako bide hauek egitea dugu helburu nagusi: **ikastetxeko bizikidetza plan bat** garatzen jarraitzea, **fedean oinarritutako hezkuntza ibilbidea** ezartzen amaitzea, bost hizkuntza jorratzen dituen **hizkuntza proiektuari eustea**, gure irakaskuntza jardunaren **berrikuntza eta hobekuntza sustatzea**, **curriculumetik kanpoko jardueren** proposamen interesgarri eta zabala eskaintzea, familiarekin batera lan egitea eta **justizia eta bakea bultzatzea.**

BALIOAK

Ikaslea berez den **pertsona** da gure ikastetxeko lehen balioa -hezkuntza ekintzaren erdigunea-, **familia espiritua, egiari begirako maitasuna, fedea, sormena eta aldaketari egokitzea.**



**Santa María
Marianistas Ikastetxea**

Luis Heintz, 5
01008 Vitoria-Gasteiz (Araba)
T. 945 134 107 • F. 945 146 780
www.marias-gasteiz.org

Idazkaritzaren Ordutegia
Goizez 08:30etatik 11:30 arte
Arratsaldez 16:30etatik 17:30 arte
Ostiral arratsaldean itxita
info@marias-gasteiz.org



GURE HEZIKETA PROPOSAMENA

Gure hezkuntza proposamena garatzeko, haren ardatz nagusian oinarritzen gara: Marianisten ikastetxe baten berezko ikasleen profila.

BARNEKOTASUNA LANTZEN DUTEN PERTSONAK, ZORIONTASUNA ARDATZ HARTUTA BIZI DIRENAK, MAITATZEKO ETA MAITATUAK IZATEKO GAI DIRENAK

Euren burua ezagutzeko, euren aukerak eta mugak ezagutu eta onartzeko gai diren gizon-emakumeak heztea, eta barne hazkuntza garatuko dutenak.

Pertsona gizartekoiak heztea, giza maitasunarekiko eta samurtasunarekiko irekiak, gainerakoak errespetatzen dituztenak, besteen tokian jartzeko gai direnak, abegitsuak, taldean lan egiten dakitenak, izaera adostailea dutenak, komunitatea sortuko dutenak.



EUREN AUKERAK GAUZATZEN DAKITEN PERTSONAK

Gure ikasleengan ekimen pertsonala eta borondatea sustatzea; izan daitezela pertsona aktiboak eta konprometituak, eta izan dezatela ahalegintzeko gaitasuna; bizitza proiektu bat lortzeko gai izango diren gizon-emakumeak, bilaketa etengabea murgilduta egongo direnak.

PERTSONA TREBEAK, PROFESIONALKI ONGI PRESTATUAK, ETA GIZARTE PLURALA ONARTZEN DUTENAK


Pentsatu, jakin, sentitu, egin eta izateko gai diren pertsonak heztea; gizartearen zerbitzura arituko diren pertsona trebeak; euren adimenak, trebeziak eta gaitasunak, ezagutzak, eskuak eta bihotza mundua eraldatzeko erabiliko dituzten pertsonak.



JAINKOARENGA- NA IREKITA DAU- DEN PERTSONAK

Jainkoaren kristau esperientzia sustatzen dugu, baita Harekin Jesu Kristoren bidez bat egin izana ere; Jainkoarengan izate osoaren zentzua aurkitzeko aukera eskaini nahi diegu ikasleei, norbanakoaren alderdi espirituala funtsezko alderdi bat dela uste baitugu.

Gure ustez, fedea mundua maitatzeko eta harekin mintzatzeko abiapuntua da, eta hura aurkitu eta lantzeko bideak eskaintzen ditugu, pertsona bakoitzaren askatasuna errespetatuz.



INGURUNEAREKIN HARMONIAN DAUDEN PERTSONAK

Inguru soziokulturean inplikatu diren, euskal kulturarekin eta euskararekin konprometituko diren eta ingurunearen garapen etikoaren alde lan egingo duten hiritarrak heztea.

Ingurumenarekiko sentikortasuna duten gizon-emakumeak heztea, baliabide naturalen erabilera arrazoizkoa eta jasangarria modu aktiboan babestuko dutenak; naturaren degradazioaren aurka egiteko eta horren kontra esku hartzeko gai izango direnak, eta planeta zaintzea ahalbidetuko duen bizimodu baten alde egingo dutenak.

PERTSONA SOLIDARIOAK ETA KONPROMETITUAK, EGOEREN AURREAN IRI- TZIA ASKATASUNEZ AZAL- TZEKO GAI DIRENAK, MUN- DU BIDEZKOAGOA ETA HOBEA SORTZEA HEL- BURUTZAT HARTUTA

Euren garaiko errealitatearen jakitun diren gizon-emakumeak heztea, gizagabetez modu ororekiko sentiberak, errukitsuak, solidarioak eta gainerakoen arazoekiko konprometitua.





ANTZERKIA INGELESEZ

Ikastetxeak, Hezkuntza Proiektuaren barruan, berezko Hizkuntza Proiektua eskaintzen du. Honek, Haur Hezkuntzan barrena, behar bezalako elebitasunaren bila, euskararen erabateko murgilketa du ardatz. Lehen Hezkuntzan hizkuntzen aniztasuna zabaltzen da, edukien ikasketa gaztelaniaz, euskaraz eta ingeleraz burutu ahal izateko; alegia, elebitasuna gauzatzen ari da. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, atzerriko bigarren hizkuntza bat, frantsesa, alemana edo txinera, ikasteko aukera emango da.

HIZKUNTZA PROIEKTUA

1. BENETAKO ELEBITASUNA

- **HARRERA.** Bere ama hizkuntza edozein dela ere, ikastetxearekin izango duen lehen harreman egunetik hasita, umearen emozio eta edukien garapenerako oinarritzotzat dugu harrera.
- **EUSKARAZ MURGILDUZ.** Gure ikasle gehienek ama/aita-hizkuntza gaztelania dela kontuan izanik, lehen egunetik hasita, erabateko euskara-murgiltze prozesuari ekiten diogu.
- **TRATAERA ESANGURATSUA.** Hizkuntza jolastu, komunikatu eta edukiak jasotzeko tresna moduan erabiltzen dugu. Ez da ikasketa prozesuko objektu hutsa, subjektua baizik.
- **GAITASUN AKADEMIKOA.** Ikasleen hirugarren hizkuntza, ingelera, ikasteko tresna moduan lantzen hasi aurretik, euskaraz duten gaitasun komunikatiboa eta akademikoa bermatzen saiatzen gara.
- **HIZKUNTZA INDARTZEKO BALIABIDEAK.** Ikasleei, eskolaz kanpo euskara indartzeko dauden baliabideak eskaintzen dizkiegu. BARNETEGIAK.





EUSKARAZ MURGILDUZ



ELKARTRUKAKETAK

2. HIRUELETASUNA

■ HIZKUNTZA-TRESNA TRATAERA (CLIL)

Bigarren hizkuntza eta ama hizkuntzaren arteko armonia orekatua bermatu ondoren, iru urtetatik ingelarekin harremanetan egon bada ere, Lehen Hezkuntzako bigarren ziklotik aurrera, gaztelania eta euskararekin batera ingelera ere, kurrikulumeko edukiak ikasteko tresna moduan erabiltzen hasiko dira.

■ BEREZKO HIZKUNTZA INGELESA DUTEN IRAKASLEAK

Erreferente eredugarriek hizkuntzaren jabetze prozesuan duen garrantziaz jakitun, 4 urtetik hasita, berezko hizkuntza duten mintzame nerako irakasle laguntzaileek, arlo horretako gainerako irakasleekin elkarlanean dihardute.

■ HIZKUNTZEN ARTEKO TRANSFERENTZIAK


Irakasgai eta hizkuntzen arteko errotazioaren bidez lortzen dugu.

■ IKUSPEGI DISKURTSIBOA

Hizkuntzen ezagutza erabilgarri bati begira honako lau trebetasunok jorratzen ditugu: AHOZKO ULERMENA, IDATZIZKO ULERMENA, AHOZKO ADIERAZPENA eta IDATZIZKO ADIERAZPENA. Beti ere benetako testu eta diskurto anitz eta aberatsetatik abiatuz.

■ IKUSPEGI INTEGRATZAILE ETA HOLISTIKOA

Hizkuntza guztiak elkarrengandik elikatzen direla jakinda, ikasleen aurre- ezagutzak, euskaraz edo gaztelaniaz dagoeneko barneraturik dituzten edukiak, aprobeztatzen ditugu.



3. ELEANIZTASUNA

■ Derrigorrezko 1. mailan hasi eta Batxilergoko 2.maila bitartean laugarren hizkuntza garatzeko aukera eskaintzen dugu: FRANTSESA, ALEMANA edo TXINERA.

■ ELKARTRUKAKETA ETA HIZKUNTZAK INDARTZEKO KULTUR-BIDAIEN bidez atzerriko hizkuntzak erabiltzeko testuinguru aproposak eskaintzen ditugu: Ingalaterra, Frantzia, Alemania, Polonia, Txina...



BARNETEGIAK



HAUR HEZKUNTZAREN GAKOAK

ESKOLARI BURUZ DUGUN IRUDIA

Eskola hurbilekoa, abegikorra, gardena, bizigarria, dokumentatuta, komunikagarria; haurrak, hezitzaileak, eskolako langileak eta familiak gustura sentitzeko. Eskola bizitzen ikasteko leku bat da.



HAURRARI BURUZ DUGUN IRUDIA

Haur trebea, aktiboa, irakasten ez zaiona, baizik eta bere kabuz ikasten duena. Haurren ekimenez abiatuko gara. Eskolan HAURRA da PROTAGONISTA.

KALITATEZKO ETA ERRESPETUZKO ARRETAREN GARRANTZIA

Nola hitz egiten diegun (HITZAK) eta zer esaten diegun zainduko dugu, baita nola begiratzen diegun (BEGIRADA), nola ukitzen ditugun (KEINUEN LEUNTASUNA), nola entzuten diegun (ENTZUTE ENPATIKOA) eta nola hurbiltzen gatzaiakien (ERRESPETUA) ere.

JARDUERA AUTONOMOAREN GARRANTZIA

Haurrak bere ekimenez jarduten duenean, ikasi egiten du eta gaitasun eta ezagutza askoz ere irmoagoak eskuratzen ditu, kanpotik haren ikaskuntzak barnera ditzan ahalegintzen garenean baino.



ESPAZIOA, BESTE HEZITZAILE BAT

Espazioak dena hezten eta dena gizarteratzen du; dena da pedagogikoa. PARTEKATU, BIZI, IKA-SI... AHAL IZATEKO LEKU BAT da. Espazio zabalak, argitsuak, ongi pentsatuak, abegikorrak, koherenteak, erabilera anitzekoa, seguruak eta epelak.



HEZIKETA TALDEAREN LANAREN BALIOA

Talde batean babesten den ikasle talde bakoitzeko erreferentziako tutorea banatzen da espazio eta tailer guztien artean. Taldeko lanak aberastasuna ekartzen du, gure sormena hobetzen du, esperientziak partekatzen ditugu eta haurrekin harremanak behatzen, aztertzen eta hausnartzen laguntzen digu.

TALDE TXIKIA IZATEAREN GARRANTZIA

Tailerraren arabera, taldea zatitu egingo da, jarduera kalitate handiagoz egiteko, eta espazio espezifikotara joango dira.

HAUR ETA HELDUEN ARTEKO KALITATEZKO HARREMANAK

Elkarrekiko konfiantza giroan, helduak haurren gaitasuntan konfiantza du, eta haurra helduaz fio da, hark zaindu, errespetatu eta maite egiten duelako. Hori guztia da harreman afektiboaren oinarria.



FAMILIAK ETA HEZKUNTZA EZPAZIOAK



FAMILIAREKIN BATERA LAN EGITEA (ESKOLA-FAMILIA)

Familiarekin batera lan egitea, elkarrekiko konfiantza giroan eta bakoitzaren eskumen arloak errespetatuta: alegia, ikastetxearenak eta familiarenak.

(IKUSPEGIA, 7)

FAMILIENTZAKO FORMAKUNTZA

Helburua elkartzeko eta gogoeta-espazio bat sustatzea da, familien artean esperientziak trukatu ahal izateko eta gure hezitzaile- lanarekin erlazio-naturiko hainbat arlotan sakontzeko.

FAMILIEN TAILERRAK

Ikastetxearekin elkarlan aktiboan aritu nahi duten gurasoek eurek urtean zehar antolaturiko hainbat **guraso-tailerretan parte hartzeko aukera izango dute**. Tailer horiek ikasgelan landuriko unitate didaktikoen jardura eta estrategia osagarriak dira eta **eskola-orduetan egiten dira**. Haur-hezkuntzako irakasleentzat ezinbestekoa da gurasoen laguntza hau, giza baliabide eta baliabide material asko behar baita tailer horiek egiteko.

FAMILIEK ERA AKTIBOAN PARTE HARTZEN DUTE **ESKOLAKO BIZITZAN**, irteera, txango eta halakoetan lagunduaz, Pastoralgintzako ospakizunetara etorriaz...

1-2 URTE ORDUTEGIA

07:30etatik 08:20etara	Goizeko zaintza
08:30etatik 09:30etara	Malgutasuna sarrera orduan
09:30etatik 12:30etara	Klaseko ordutegia
12:30etatik 13:15etara	Malgutasuna irteera orduan (Jantokirik ez)
13:15etatik 13:30etara	Malgutasuna irteera orduan (Jantokia bai lo-kuluxkarik gabe)
15:00etatik 17:00etara	Malgutasuna sarrera /irteera orduan
16:00etatik aurrera	Askaria
17:00etatik 18:00etara	Arratsaldeko zaintza

3-5 URTE ORDUTEGIA

07:45etatik 08:55etara	Goizeko zaintza
09:00etatik 12:45etara	Klaseko Ordutegia 1.H.H. sarrera libre 9:00etatik 9:30etara.
12:45etatik 15:15etara	Jantokia
15:15etatik 17:00etara	Klaseko Ordutegia
17:00etatik 18:00etara	Arratsaldeko zaintza Extracurriculometik Kanpoko Jarduerak (4 urtetik aurrera)



HAUR HEZKUNTZAKO LIBURUTEGIA



HEZKUNTZA TEKNOLOGIA



HAUR HEZKUNTZA PASTORALA





Bisitatzen gaituztenek, gure etxera hurbiltzen direnek, aukeratzen gaituztenek begirada desberdina aurkituko dute haur bakoitzarentzat. Begirada hori mirespenez beteta dago, badakigulako izaki perfektua dela. Begirada hori errespetuz beteta dago, gure tradizio marianistak betidanik erakutsi diguna delako. Begietara zuzenean begiratzen duen begirada, beragan sinesten dugula, bere gaitasunez fio garela sentiarazten diona.

PROIEKTU PEDAGOGIKOA

1-2 URTE

BI FILOSOFIA

LOCZY- EMMI PIKLER ESPERIENTZIA

Mugimendu askatasuna haurren garapen motorean, kalitatezko zaintzak, helduaren jarrera eta ongizatea.

REGGIO EMILIA-MALAGUZZI

Espazioaren garrantzia, talde txikiak, hezitzailearen hurbileko arreta, estetika, haurren prozesuak dokumentatzearen garrantzia eta adierazpen taillerak.



IZATEKO eta EGO-TEKO eskola izan nahi dugu, eskola **ENPATIKOA**.

Loris Malaguzziren arabera, "haurren, langileen eta gurasoen arteko harremanen kantitateak eta nolakotasunak, horiek egituratzen diren espazioak eta gauzatzen diren denborak zehazten dute ikasketxearen beraren kalitatea eta nortasuna".

BEREZIKI ZAINDUTAKO UNEAK

BAZKALORDUA

Bazkalordua denbora eta komunikazio-ko espazio bihur daiteke, haurrak bere komunikazio trebetasun guztiak azalera-tuko ditu, helduaren ilusioak lagunduta; bazkaldu eta elikatze denbora izateaz gain, helduen eta haurren artean komunikatzeko denbora izan daiteke.

GARBIKETAKO ETA PIXOIHALA ALDATZEKO GARAIA

Komuneko garaian esperientziak, bizipenak eta komunikazioa sortzen dira. Gorputza zaintzeko ekintzak topaketa une pribilegiatuak dira haurren eta hezitzailearen artean eta haurren eta bere gorputzaren artean.

Esfinterren kontrola une garrantzitsua da; heltze neuromuskularra behar duen prozesua delako, baina baita horrek dakarren osagai afektibo eta autonomiakoa-gatik.

LOTARAKO GARAIA

Lo egiteko, logela bereziki prestatzen eta zaintzen dugu; argitxo bat jartzen dugu ingurua iluntzeko eta musika atsegina jartzen dugu, lotarako leku lasaiagoa eta egokiagoa sortuz.

Haur bakoitzak bere leku finkoa du.



GARBIKETAKO GARAIA



LOTARAKO GARAIA





Gure irakaskuntza jardunaren berrikuntza eta hobekuntza sustatzea, etengabe aldatzen ari den gizartearen erronkei eraginkortasunez erantzun ahal izateko (Berrikuntza Pedagogikoko Prozesua).

(IKUSPEGIA, 5)

PROIEKTU PEDAGOGIKOA

3 - 5 URTE

Gure ikastegien berrikuntza pedagogikoa da Ikastetxe Marianisten sareak duen proiektu garrantzi-tsunetakoa. Gizarteak, familiek, aldaketa teknologikoek eta gure ikasleek bizitzan aurkituko duten etorkizunak ikaste-irakaste metodo berriak erabiltzea eskatzen digute eta bide berriei ekiteko indarra ematen digute.

Lau urte hauetan, berrikuntza pedagogikoko prozesu serioa eta sakona garatuko dugu gure hezkuntza-etapa guztietan. Kalitatezko hezkuntza eskaini behar diogu gure gizarteari, gure ikastetxeetan beste inon baino hobeto hezi eta ikasi ahal izateko moduan.



Gure berrikuntza-prozesuak lau oinarri nagusi ditu:

▶ **ASKOTARIKO ADIMENAK LAN KOOPERATIBOA**

Lan kooperatiboaren ereduarekin jardunez, haurren arteko **interakzioa baliatu nahi da ikasgelan**, ikasle guztien garapena aukerak areagotzeko.

▶ **PENTSATZEN IKASTEA**

Pentsatzen jakinez gero, haurrak era egokian erabiliko ditu bere ezagupenak, bere gaitasunak, bere pentsamen-trebetasunak eta bere baliabide kognitiboak

▶ **PROIEKTU BIDEZKO LANA**

Lan-proiektuetan, ikasle-taldeak ikerketa-prozesua garatzen du ardatz edo gai jakin baten inguruan. Ardatz hori **malguziazatzen da**, gure umeen interes eta motibazioetara egokitua.

▶ **IKTak**

Ordenagailu, tablet-ak eta arbela digitalen sarrera Haur Hezkuntzako geletan oso erakargarria suertatu zaie haurrei, eta bere erabilerak umeen ikasketa-eremu ezberdinetan landutako gaiak **erreforatzeko, osatzeko edo zabaltzeko balio behar du.**


▶ **SORMENA**

Tailer berri bat abiarazi dugu, **birziklatu-riko materialekin sormena lantzeko helburuarekin**; haurraren **sormen-gaitasuna** indartzea eta irudimena piztea da ekimen honen xedea. Tailer honetan ez dugu bilatzen arte-lan bikainak egitea, baizik eta jolastea, eta material birziklatuak aztertuz, **ekimen honen bidez umeen gogoetak, esperientziak, gurariak eta emozioak suspertzea.**





ZERBI - TZUAK



JANTOKIA

Ikastetxeak jantoki zerbitzua eskaintzen du. Eta, horretarako, **bertan dauka sukaldea**. 1-2 urteetan menuak egokituak dira, eta pediatren argibideen arabera, elikagaiak pixkana txertatzen dira. Era berean, **dieta bereziak eska daitezke, alergiengatik edo intolerantziengatik**, betiere, dagokion medikuaren txostena aldeztuz.

3-5 urteetan bazkaria bukatu eta gero aktibitate batzuk egiten dituzte klaseak hasi arte (3 urteetan lo-kuluska egiten dute nagusiki)

Etapaz-etapa banatutako begirale talde zabala eta koordinatzailebat arduratzen dira zerbitzua modu egokian bideratzeaz. **Egunero egiten dute haurren jarraipena.**

HAURTZAINDEGIA

Arratsaldeko eta goizeko zaintza zerbitzua badago klaseko ordutegia luzatzea behar duten familientzat. 1-2 urteetan zerbitzua erabiltzeko aukera izango dute, umeak 8 ordu baino gehiago ematen ez baditu eskolan. Zaintza zerbitzu hau ordaindu behar da.

1-2 urte

- 07:30etatik 08:20etara, eta 17:00etatik 18:00etara.

3 urtetik aurrera

- 07:45etatik 08:40etara, eta 17:00etatik 18:00etara.

HAUR ARROPA

Ilusioa eta nortasuna sortuz

Marianistak ikastetxeko haur hezkuntzako ikasleak ikastetxearen arropaz jantzita datos eskolara. Zehazki, txandala eta mahuka luze edo motzeko poloa erabiltzen dituzte (El Corte Inglés saltokian salgai).

1,2 eta 3 urtekoen ikasgelan, haurrek arropa horiek ekarri beharko dituzte egunero. 4 eta 5 urtekoen ikasgelan psikomotrizitatea eta sormena duten egunetan.



CURRICULUMETIK KANPOKO JARDUERAK

Marianistaseko apustu bat eskola ordutik kanpoko jarduerak ezberdinak dira, gure zentruko beste ezaugarri bat izanik, eta gure lan hezitzaileari jarraipena ematen diogu.

Jardueren eskaintza Haur Hezkuntzako 2. mailan hasten da. Lehen urteetan aukera daitezkeen jarduerak honako hauek dira: zeramika, musika eta mugimendua, judo, gimnastika erritmikoa, eta robotika. Aukera zabalduz doa hurrengo etapetan.

Apirilean entregatzen dugun liburuan hurrengo ikasturteko jarduerak eta zerbitzu guztiak aurki daitezke. Ikastetxearen webgunean ere kontsulta daitezke.

musica
MARIANISTAK



JUDO



ZERAMIKA



ROBOTIKOA





KANPUSA

Marianisten Uda Kanpusa **HAUR HEZKUNTZAKO ETA LEHEN HEZKUNTZAKO** ikasle guztiei irekia dago, eta ziklo bakoitzaren baitan, taldeak adinaren arabera osatzen dira. Gure eskaintzaren helburua ahalik eta malguena izatea da, familien premia eta nahi guztiak asebeteko. Klaseak bukatu bezain laster hasten da eta **bost astez luzatu daiteke**, izena ematea asteka egin daiteke, norberak nahi dituenak aukeratzuz. Halaber, **ikastetxean bazkaltzeko aukera ere badago (aukerakoa) eta bi zaintza zerbitzu eskainiko dira.**

Marianistas Udako Kanpusa **erreferentzia** bihurtu da eskeintzen dituen ekintza, txikienezko igerilekua ikastetxean bertan eta oheelastikoari esker. Beste identitate ikur bat informazioa da. Egunero argazkiak igotzen ditugu web orrira eta mail bat bidaltzen diegu familiei azaltzen egunean zer egin den eta hurrengo eguneko plangintza.





MHP

MHP Aste Santuko oporretan primeran pasatzeko bestelako proposamena da.

Aurreko aldietan bezala, zenbait egunetan norberak aukeratuko du zertan hartu parte eta bi egun tematiko egongo dira neska-mutikoak **abentura, akzio eta sorpresa giroan murgil daitezten.**

Haur eta Lehen Hezkuntzako taldeak egongo dira ezin ahaztuzko egunez gozatu nahi duten haur guztiak gurekin diberti daitezzen. Gainera, zaintza eta jantoki zerbitzua eskainiko diegu eskatzen duten guztiei.







educamos

HEZKUNTZA
PLATAFORMA



APP
deskargatu



Ikastetxeak teknologia berrien aldeko apustua egin du, familiekiko harremana sendotzeko. **“Educamos” aurreko kurtsuan berritu egin izan zen erabilgarriagoa izateko eta funtzionalitate berri batzuk gehitu zituzten.** Aurrera egiteko garaia da. Ikastegi guztietan ari dira hezkuntza-plataformak hedatzen, eta “Educamos” da gurea.

- Zuzeneko komunikazioa irakasle guztiekiko.
- Ikaslearen agendarako sarbidea: Gogorarazi beharrekoak, egin beharrekoak, azterketak...
- Jazoeren kudeaketa eta jarraipena: Ez egoteak, atzerapenak, portaera...
- Berriak, oharrak eta zirkularrak. Informazioa eguneratua.
- Kalifikazioen jarraipena plataformaren bitartez.



**SANTA MARÍA
MARIANISTAS**
Vitoria-Gasteiz